

**Arartekoaren ebazpena, 2008ko abenduaren 2koa, Bakioko Udalari zuzendutakoa. Horren bidez, amaiera ematen zaio Bakioko plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketaren gaineko jarduerari.**

### Aurrekariak

1. (...) elkarteak (hemendik aurrera Elkartea) erakunde honetan kexa aurkeztu du, ez dagoelako ados Bakioko udalak udalerriko plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketan egindako izapidetzearekin eta, ondoren, hainbat plan partzialen bidez, izandako garapenarekin.

Aldaketa horrek hainbat sektoreentzako indarrean dauden Arau Subsidiarioen aurreikuspenetan eraikigarritasuna handitzea baimentzen du, urbanizatzeko egoki diren lurren sektoreetan (Errenteria, Elexalde eta Ohija) eta hiri lurzoruetan.

Elkarte horren ustez, aurreikusitako antolamendu irizpideek eta etxebizitza kopuruaren gehitzeak, orain arte udalerrian aplikatu den konfigurazioa eta garapen ereduak alda dezakete. Era berean, Arau Subsidiarioen jakinarazpen zehatzen bidez eta udaleko hirigintza plangintzaren aurrerapenaren onarpenarekin paraleloan, eraikigarritasunaren handitzea sustatzeko jarraitutako prozedura ezbaian jarri dute.

Azken batean, izapidetzen ari den hiri garapenaren ereduarekin beren desadostasuna agertzen dute, eta prozedura horren "*ab initio*" zenbait eskubiderekin duen egokitasuna ezbaian jarri dute, herritarrek etxebizitza duina izateko, ingurumen egokia lortzeko eta hirigintzako antolamendu prozedurekin modu eraginkorrean parte hartzeko eskubideekin, hain zuzen ere.

Zehazki Ohija bizitegitarako 5. sektorearen Plan Partzialean jasotako antolamendua aipatzen du, balio ekologiko handiko zonan baitu eragina, inolako babes publikorik gabeko etxebizitzak eraikitzea bideratutako lurzorua garatzeko asmoz.

Erreferentzia: 155/2007/23

2. Kexa hori izapidetu ostean, kexagileei adierazi nahi diegu, kexak izapidetzen ari diren hainbat plangintza tresna aipatzen dituela, eztabaidagarri den antolamendu proposamenaren sakoneko edukiari buruzko behin betiko ebazpenaren zain daudenak beraz, bai eta Arau Subsidiarioen aldaketari zein garapen tresnen ondorengo izapidetzeari dagozkionak ere.

Bere garaian modu horretan zuzendu ginen Bakioko udalera, erreklamazioaren berri emateko eta proposatutako antolamenduaren edukiari eta izapidetzeari buruzko zenbait alderdi bere esku uzteko.

Kontu horiek Elkarteak jakinarazitakoak ziren eta aipatutako espedienteetan alde interesduna izatea eskatu zuten, eta are zehatzago, SUR-1 Areagako sektorea arautzen zuen plan partzial baten onarpenean ere alde interesduna izatea. Bestalde, Arau Subsidiarioen aldaketari eta udaleko hirigintza plangintzaren aurrerapenari egindako alegazioen idazkia aurkeztu zuten aurreikusitako epearen barnean.

Elkarteak salatutako alderdi formalen barnean udalak eskatutako informazioa bidali ez izana zegoen. Horrek ez die informaziorako eskubideaz eta herritarrek partaidetzarako duten eskubideaz baliatzeko aukerarik ematen. Halaber aipatu zuten zailtasunak izan dituztela udal areto bat elkartearen ekitaldi baterako erabiltzeko; orobat, "Herri Barriak" aldizkariaren monografikoa argitaratu omen da, udalerrriaren hiri garapenari buruzkoa, eta bertan ez da elkartearen iritzia jaso.

Gaiaren funtsari dagokionez elkarteak azpimarratu zuen aipatutako plangintzako tresnen aldaketek zekarketen hirigintza-ereduak udalerrirako aurreikusitako eraikigarritasuna handitzea eragingo zutela eta hori, beharbada, zenbait printzipioren kalterako izan zitekeela, besteak beste, ingurumen iraunkorrari eustekoa edo udalerriko ondare historiko eta kulturala zaintzekoa.

Aurkeztutako alegazioak hainbat alderdi aztertzen dituzte; horien artean, honakoak aipa daitezke: kasu honetan hartutako plangintzaren irudia ez dela egokia; ezin justifika daitekeela antolamendu eredu hori aukeratzea, bizitegi eskaintza gehiegizkoa dela eta udaleko lurzorua agortu dela ikusita; beharrezkoa dela aipatu arloko plangintzara eta Euskadiko lurzoruaren eta hirigintzaren legeria berrira egokitzea; beharrezkoa dela aukerak egiterakoan parte-hartzea eta eztabaida bermatzea; ingurumenean duen eragina aztertu

Erreferentzia: 155/2007/23

eta ebaluatu behar direla, hiri garapen horrek biodibertsitatean galerak eragin baititzake. Proposamen horiek ikusita, azpimarratu zuten beharrezkoa zela herritarren partaidetzarako mekanismoak ere ezartzea, erabakiak hartu aurreko fasean, hirigintza antolamenduan udal eskumenen kaltetan izan gabe.

3. Gure eskaerari entzuna emateko, Bakioko udalak txostena bidali zigun. Txostenean Bakioko Arau Subsidiarioen aldaketaren izapidearen berri eman zigun, behin betiko onartutakoak abenduaren 14ko 810/2001 Foru Aginduaren bidez.

Aldaketek udalerriko zenbait esparruri eragiten diete, hiri lurzoru (UE Ariztondo eta UE ZR 11) eta urbanizagarri (SR3, SR5 eta SR6) gisa izendatutakoei, baina Arau Subsidiarioetan adierazitako lurzoru urbanizaezinaren esparruari eragin gabe. Aldaketek, hainbat esparrutan, eraikigarritasuna handitzea aurreikusten zuten, hasieran aurreikusitako 425 etxebizitza 1169ra handitzeko aukera eman zutelako.

Udalak uste zuen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, lehenengo xedapen iragankorrenekin bat, gutxieneko eta gehieneko hirigintzako eraikigarritasunei egokitzea zuela –legeak hala aginduta–. Arau horretan jasotako gutxieneko eraikigarritasuna 0,25 m<sup>2</sup>-koa da lurzoru urbanizagarrian eta 0,4 m<sup>2</sup>-koa finkatu gabeko hiri lurzoruetan.

Udala aldaketak egitera bultzatu zuen arrazoi nagusiak eraikitzeke lur eskasia eta etxebizitzarako dagoen eskaera, batez ere taldeko etxebizitzetzi dagokienez, izan ziren. Honela dio:

- 1. Taldeko eraikuntzari lehentasuna ematea erraztuko du sektoreak udalerrri bateko hirigune batekin bat etorri behar duen hirigintza egitura izatea, eta merkataritzako jarduerak eta erabiltzaileek erabiltzen dituzten aisialdi eremuak irekitzen laguntzea. Alderdi horiek betetzen zaila izango da, batez ere, familia bakarreko etxebizitzak eta etxe atxikiak exekutatzuz gero.*

*Horrez gain, aipatu bezala, familia bakarreko etxebizitzak eraikitzeak definitu gabeko erabilera duen lursail eremu handia okupatzea dakar. Horrek, zalantzarik gabe, ingurumenari eragiten dio, udalerrian eraikitako eremua biztanle kopuruarekin neurritz kanpoko izango delako, nahiz eta*

*Bizkaiko udalerrietan azalera eraikigarria gero eta txikiagoa izan, hirigintza sustapenak, biztanle kopuruaren gehitzea eta eremuaren orografia direla eta.*

2. *Bestalde, dentsitatea handitzeak eraikuntza trinkoagorako bidea emango du, lurzoru gutxiago okupatzen duelako, eta horrek aisialdirako eremu eta eremu berdeetarako lurzoru publiko gehiago lortzea ekarriko du, 2001.ean behin betiko onartutakoetan ezarritako dentsitateak aplikatuz gero lortuko liratekeen lurralde ereduari dagokionez.*

*(...)*

3. *Azpimarratu behar dira, baita ere, udalerrian egingo diren Babes Ofizialeko Etxeak eta Udal-Etxebizitza Tasatuak.*

*(...)*

*Beraz, alkatetza horren ustez, udalerrian prezio eskuragarriko etxebizitzetarako dagoen eskaera aise betetzen du*

4. *Garrantzitsua da aipatzea aldaketetan aurreikusitako hirigintza garapenak, bereziki, Elexalde, Ohija eta Errenteriako sektoreetan, garrantzi handiko diru-sarrerak ekarriko dizkiola udalari eta horrela, Bakiok kalitatezko zerbitzuez hornitzeko obrak finantzatu ahalko ditu. Esaterako, kiroldegia, Estankoalde pabilioia birmoldatzea eta eraberritzea, txakolinaren museoa, etab.*

*Hemen aipatutako aldaketak birdentsitateak edo eraiki daitekeen bolumena handitzea izan dira, beraz, ez da inolako birsailkapenik egon, 2001ean onartutako Arau Subsidiarioetan hiri eta urbanizagarri gisa sailkatutakoak lurzoru zehatzen inguruan adostutako aldaketak direlako, eta goian aipatu bezala, ez diete urbanizaezin diren lurzoruei eragiten.*

Herritarren partaidetzari dagokionez, udalak esan du Arau Subsidiarioen plangintzaren eta aldaketen aurrerapenean aurkeztutako alegazioei erantzun diela. Antolamendu proposamen horiek bitan jarri ziren jendaurrean, Bizkaiko aldizkari ofizialaren eta udalaren iragarki oholaren bidez. Gainera, idatzizko beste komunikabideetan, udaleko aldizkarian eta ikus-entzunezko beste hedabideetan ere tratatu ziren. Udalaren ustez, horietan, herritarren partaidetza nabaria izan zen. Gogoeta horren adibide gisa, udalak aipatu du, prozesu horretatik SR 5 Ohijako sektorea, proposatutako dentsifikazioaren ingurumen eraginaren ebaluazioa egiteko, baztertu dela.

Erreferentzia: 155/2007/23

Udalak uste du ezinezkoa litzatekeela Arau Subsidiarioen aldaketan Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legean aurreikusitako betekizunak aplikatzea, 108. eta 109. artikuluetako herritarren partaidetzaren programa edo plangintzako Batzordeari buruzkoak. Izan ere, hasierako onarpenean ez baitago indarrean eta Aholku Batzordea ez delako beharrezkoa plan orokorren behin betiko onarpena eskumena duten udalentsat baino.

Informazioa eskuratzeari dagokionez adierazi digu, antolamendu planak interesa izan duen pertsona ororen eskura egon direla. Nolanahi ere, esan dute tokiko administrazio hori ez dagoela behartuta Elkartearekin tratatu ezberdina izatera, beste pertsona edo elkarteekin duenaren bera izan behar duela, zuzeneko interesdunaren izaerako izendapena eman ez zaiolako.

Elkarteak, azaldutako kontuen mamiari dagokionez, jendaurrean ezarritako bi izapideetan aurkeztutako alegazioen osotasunari emandako erantzuna bidali digu.

Udalaren argudioa da, izapidetutako aldaketa zehatz horrek ez duela planteamendua berrikusteko beharra ekarriko lukeen udalerriko antolamenduaren egituraren aldaketarik ekarriko. Esparru ezberdinetan eraikigarritasuna handitzeak ez du Arau Subsidiarioetan ezarritako lurzoruaren sailkapena aldatzen. Eremu baten eraikigarritasun bolumena handitzeko plangintza aldatzeko aurreikuspena 1976. urteko Lurzoruaren legearen testu bategineko 49.2. artikulua zein Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 105.2. artikulua barnean dago.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legea aplikatzeari dagokionez, bigarren xedapen iragankorraren arabera, legea indarrean jarri aurretik onartutako aldaketa zehatzen espedienteek aplikatzeko aukera dute edota 1976ko aurreko Lurzoruaren Legean ezarritako prozedura jarraitzea. Nolanahi ere, udalak uste du legeri berriaren ezarritako lurzoru publikoen ondareen erregimen juridikora egokitzea beharrezkoa dela, baina ez, bestalde, babestutako etxebizitzak eraikitzeke lurzoruaren erreserbaren erregimen berrira egokitzea.

Udalak esan du sektore horien dentsitatea handitzeak, hain zuzen ere, hirigintza garapen iraunkorreko ereduari erantzuten diola. Urbanizagarriak diren luraren erabilera arrazionala Mungialdekoa Lurralde Plan Partzialari (LPP)

Erreferentzia: 155/2007/23

–izapidetzen ari dena– eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legeari Lurralde Antolamendurako Arteizpideek (LAA) egiten dieten gogoeta bateratua da. Era berean, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak (EHLAB), indarrean dauden 2001eko Arau Subsidiarioak onartu bitartean egindako txostenean, hainbat sektoreen dentsitatea handitzea gomendatzen zuen. Udalak arrazoitu du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen bigarren xedapen iragankorrak berak hirigintza eraikigarritasunen areagotzea eskatzen duela gutxieneko mugekin bat ez datozenean, automatikoki edo plangintzaren aldaketaren edo berrikuspenaren bidez.

Ingurumeneko eraginaren azterketa bateratuari buruz, udalak erantzun du ez dagoela azterketa hori egiteko beharrik, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 31/1998 lege orokorraren I. eranskinean berariaz baztertutako ustekoa delako, izan ere, azterketa hori soilik urbanizaezina den lurzoruari eragiten dioten aldaketetarako jasotzen du. Hala ere, udalak adierazi du Ohijako SR 5 sektorean ingurugiroko eraginaren azterketa bateratuaren prozedura izapidetzea egoki jo duela.

Ondorioz, egindako alegazioak ezetsi ditu, baina aldaketetatik jarduerarik polemikoena baztertzea erabaki du, Ohijako SR 5 sektoreari dagokiona.

4. Plangintzaren arau subsidiarioen aldaketaren prozedura ostean, izapidetzea jarraitu du eta abenduaren 4ko 523/2007ko Foru Arauarekin burutu da (bere araudia 2008ko ekainaren 23ko BFAn argitaratu da), Errenteria eta Elexaldeko bizitegi sektoreei dagokienez eta Ariztondo eta Zr 11-ren lurzoru urbanizagarri guneetan.

EHLAB-k egindako txostenak azpimarratu du eraikigarritasun dentsitate handiago horren irizpidea egokitu dela, arau subsidiarioen berrikuspenean jada nabarmendutakoa. Edonola ere, gogoeta orokorrako baten beharra azpimarratu zuen, biztanleriaren areagotzea eragin dezaketen zuzkidura publikoa izango duten gune handi gehiagoren beharri buruzkoa. Era berean, Errenteria eta Elexaldeko sektoreetan eta Ariztondoko egikaritze unitatean babes publikoko etxebizitzaren erreserbak sartzeko beharrezkoa zela adierazi zuen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legean ezarritakoaren bat. Hori, 2000 biztanle baino gehiago eta lur urbanizagarri jarraitua duten udalerriei aplikatzen zaie eta, bertan, Bakio jasotzen du, 2005eko datuen arabera.

Erreferentzia: 155/2007/23

Arau Subsidiarioen garapenean, behin betiko, SUR.3-Errenteriako Plan Partziala onartu da (2008ko abuztuaren 13ko BFA), bai eta SUR.6-Elexaldekoa ere (2008ko abuztuaren 21eko BFA).

Bestalde, SR 5 Ohijako sektorea, antolamendu proposamenaren ingurumen eraginaren udal azterketaren ostean, 2001eko Arau Subsidiarioen erabakien arabera izapidetu da, 2008ko maiatzan hasieran onartutako plan partzial baten bidez (ekainaren 24ko BFA).

Erreklamazio hau ikusita, kexan eta Udalak bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

#### Gogoetak

1. Aurretiazko gogoetak.

Nabarmendu behar dugu Arau Subsidiarioen aldaketaren izapidea amaitu dela, abenduaren 4ko 523/2007 Foru Arauaren administrazio-espeditatea (2007ko abenduaren 24an BFAn argitaratutako ebazpena) eta testu arautzailea egin ostean (2008ko ekainaren 23ko BFA).

Antolamenduak Elkartek aurkeztutako kexaren eduki nagusia mantentzen du, eraikigarritasuna eta etxebizitza kopuruaren gehitzeari dagokionez. Nolanahi ere, garrantzitsua da, aurkeztutako hainbat alegazioen ostean eta udalak hala aginduta, Ohijako sektorea baztertu izana, sektorea urbanizatzea baitzen kexagilearen kezkaren arrazoi nagusia.

Ebazpen hau egiten ari den unean, SR 5-Ohijako sektorea 2001eko Arau Subsidiarioen eraikigarritasuna aplikatuko dituen plan partziala behin betiko onartzearen zain dago.

Hori dela eta, ebazpen honen xede nagusia, bere garaian Elkartek adierazitako gaietan biltzen da, Bakioko Arau Subsidiarioen aldaketa zehatzari buruzkoa, behin betiko onarpenaren terminoetan 3-Errenteriakoa eta 6-Elexaldeko sektoreei eta Ariztondoko eta ZR 11-ko guneei dagokienez.

Erreferentzia: 155/2007/23

Edonola ere, nahiz eta izapidetzen egon, egoki jo dugu Ohijako sektorerako aurreikusitako zenbati udal erabakiei buruzko gogoeta batzuk txertatzea.

Elkarteak, bere kexan, orain aztertuko ditugun alderdi batzuk jaso zituen: hirigintza plangintzaren aldaketa prozedura, udalaren hirigintza antolamenduaren eredia, ingurumenean izango duen eragina, udaleko etxebizitza politikan izango duen eragina eta, azkenik, herritarren partaidetzarako mekanismoak eta izandako hirigintza antolamenduen prozeduren egondako informazio eskuragarria.

## 2. Arau Subsidiarioak aldatzeko prozedura.

Bakioko udalak Arau Subsidiarioetako aurreikuspenak aldatu nahi ditu, esparru eta sektore zehatz batzuetan eraikigarritasuna handitzeko asmoz, sailkapen hori jada zeukatenak eta hiri-lurzoru eta lurzoru eraikigarrien barne daudenak.

Elkarteak zalantzan jartzen du udalak jarraitutako prozedura udalerriko etxebizitza eskaintza gehitze garrantzitsu hori sustatzerakoan, indarreko hiri antolamenduko ereduaren eraldaketa dakarrena.

Jarraitutako prozedura, aurreikusitako aldaketaren erakundearenaren desberdina da. Berrikuspenak aurretik aukeratutako lurralde eredia osotasunean edo zati batean berriz aztertzea dakar, eta hirigintza orokorraren egituraren edo lur sailkapenaren irizpide berriak hartzea. Aldaketak, aitzitik, antolamenduan dakar aldaketa, diseinatutako lurralde antolamenduaren egituraren funtsezkoari ukitu gabe, aldaketa horrek sailkapenean edo lurraren sailkapenean aldaketa bakanak ekarri arren.

Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuaren 154. artikulua aipatu beharra dago, Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko legearen Garapen eta Aplikaziorako Plangintzaren Araudia onartu zuena eta ustezko honetan aplikatu daitekeena. Artikulu horrek honela dio:

*"Plana berrikustea lurraldearen egitura orokorrean eta organikoan edo lurzoruaren sailkapenean irizpide berriak onartzea da, eta ondorengoek eragin dezakete: lurralde antolamendu desberdina aukeratzea, bat-batean*



Erreferentzia: 155/2007/23

*agertutako baldintzak, izaera demografiko edo ekonomikokoak, antolamenduan bereziki eragina dutenak edo planaren gaitasuna agortu delako.*

*Beste ustezkoetan, planaren erabakiak aldatzea planaren beraren aldaketatzat joko da, aldaketa horrek sailkapenean edo lurzoruaren sailkapenean aldaketa bakanak ekarri arren edo plan orokorraren programazioa berrikusteko bidezkoetasuna inposatu arren.*

Jurisprudentziak irizpide hori kasu zehatz bakoitzaren arabera zehaztu du, eta aukeratutako hirigintza ereduaren aldaketaren erakundean garrantzia jarri du. Berrikuspenaren edo aldaketaren bidezkoetasuna aukeratzeko elementu garrantzitsua, ezarritako lurralde ereduari buruzko irizpideetan funtsezko aldaketarena da.

Bestelako ustezkoetan, prozedura aldaketa izango da. Ordenamenduan, 1976ko LLTBaren 49. artikuluan, bereziki jasotzen den kasu bat eremu bateko eraikigarritasun bolumena handitzeko bideratutako aldaketarena da, biztanleen dentsitatea handitzeak eskatzen duen espazio libre gehiagoren aurreikuspenarengatik baldintzatukoa.

Zentzu horretan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legeak plangintza aldatzeko aukera ezartzen du bizitegi erabilerako hirigintza eraikigarritasuna gehitzeko (105. artikuluan eta bere bigarren xedapen iragankorra). Xedapen honetan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legeak gutxieneko eraikigarritasun automatikoaren egokitzapena aurreikusi du, legeak hala aginduta, udalak neurri hori aplikatu ahal izateko aldaketarik edo berrikuspenik gabe ezinezkotzat jotzen duenean izan ezik.

Agindu honen arabera, udalak egin nahi duen aldaketa, plangintzaren aldaketaren barne sartzen da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legean ezarritakoak hobe betetzeko hirigintza eraikigarritasun antolamendua egokitzera edo Bakiorako aurreikusitako lurralde eredia egokitzera zuzendutakoa.

Ukaezina da egoitza handitzea garrantzitsua dela. Hala ere, ezin da ondorioztatu handitze horrek udalerraren egituraren aldaketa garrantzitsua dakarrenik. Beste egoeren artean, mantentzen da, indarreko Arau

Erreferentzia: 155/2007/23

Subsidiarioetako indarreko lur-sailkapenaren erregimena, zonifikazioa edo berdeguneak edo espazio libreak mantentzen dira. Eta are garrantzitsuagoa dena, ez da Lurraldeko Antolamenduaren Artezpideetan edo izapidetzen ari den Mungialdeko Lurralde Plan Partzialean ezarritako garapen eredutik desberdina.

Ondorioz, aldaketa zehatzaren prozedurak, aurretiaz egoitza erabilera gisa plangintzak sailkatutako sektoreetan, eraikigarritasuna handitzen laguntzen du. Kasu honetan, dagoen eskaerarekiko etxebizitzaren handitze garrantzitsua izan arren, aldaketak ez du arau subsidiarioetan ezarritako antolaketa berriz aztertzea eskatzen, baizik eta eska daitezkeen gutxienezko eraikigarritasunari egokitzea Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legeak indarrean dagoenetik.

### 3. Hiri garapen iraunkorraren eredua.

Udalak emandako arrazoitzeak, eraikigarritasunaren handitzea proposatzeko, lurra ondasun eskasa dela eta era arrazionalen eta iraunkorrean erabili behar dela du jatorria. Aitzitik, Elkarrekin handitze hori ezbaian jarri du, eutsiezina den egoitza eredutzat jotzen duelako, eta hirigintza garapen sakabanatua sustatu eta dagoen lurra, kolonizatu gabe, hirigintza jardueraren bidez, agortzen duelako.

Garapen iraunkorraren oinarriak hirigintza antolamendua informatu eta bideratu behar duen irizpidea izan behar du. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legeak hirigintzaren printzipio orokor gisa jasotzen du. Bestalde, Lurzoruaren 8/2007 Legeak, maiatzaren 28koa, hirigintza garapen iraunkorraren printzipio hori lurzoruaren modu eraginkorrean okupatzeko behar gisa ikusten du, eta Konstituzioaren 45. eta 47. artikuluetan ezarritako konstituzioko printzipioekin lotzen du.

Eredu hori hiri trinko baten zati da, eta bere plangintza dentsitatearen kontura hirigintza sakabanaketa murriztea da, gizarte kohesioa eta hirigintza mugikortasun hobea bultzatzeko.

Erreferentzia: 155/2007/23

Termino horietan, EAeko ingurumen helburuetako bat bezala txertatu da<sup>1</sup> eta Europako Batzordeak ingurumenerako gaiaren inguruko estrategiaren zati da<sup>2</sup>.

Printzipioa 2001eko Arau Subsidiarioek jada sailkatutako esparru horietan etxebizitzaren dentsitatea handitzeko udal plangintzarekin bat dator, eta nahi duena ez da birsailkatzea, baizik eta erabilera eraginkorragoa ematea. Hau da, aldaketak ez du lurzoruari egoitza erabilera emateko aukera eztabaidatzen, udalerraren garapenerako bere egokitasuna aldaketaren helburu diren arau subsidiarioetan onartu baitzen.

Zentzu horretan, Euskal Herriko Antolamendurako Batzordeak, aldaketa jakinaraztean, hurrengoa hausnartu du:

*“eraikigarritasunak (0,40 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>) ondorengoei erantzuten die: arauen berrikuspenaren agirian proposatutako dentsitate gutxiko egoitza garapena berriz aztertzea, Batzordeak jaulkitako txostenak jaso zuenaren arabera, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legean jasotako gutxieneko eraikigarritasuna, lurraldearen garapen iraunkorrakoaren lerrotik doan azken proposamenarekin. Hori guztia, oso positiboki baloratzen da”.*

Beste kontu bat da lurralde eredia edo sektore horien lurzoria sailkatzeko aukera, 2001eko Arau Subsidiarioetan behin betiko onartutakoa. Bakioko udalerriko hazkunde eredu hori, bigarren egoitzaren udalerriri hartzaile gisa, Lurraldearen Antolamenduaren Artezpideen eta izapidetzen ari den Mungialdeko LPParen helburuen barnean dago. EHLAB da, hain zuzen ere, hazkundearen kontrola egin behar duen erakundea, LAAan aurreikusitako

---

<sup>1</sup> “Dentsitate gutxiko garapenaren bidez lurraldearen kontsumoa saihestea, lurzoru egokienetan eraikigarritasun dentsitateak txertatuz, lurralde antolamenduaren tresnekin bat datozenak”. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programa (2002-2006), 31. or. 31. [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-5832/es/contenidos/plan\\_programa\\_proyecto/eavds\\_pma/es\\_9688/adjuntos/pma0206.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-5832/es/contenidos/plan_programa_proyecto/eavds_pma/es_9688/adjuntos/pma0206.pdf)

<sup>2</sup> “Hirien hazkunde neurrigabea gelditzea, dentsitate handiko eta erabilera mistoko finkapen jarraibideen bidez, onurak dakarzkiziolako bai lurzorua erabilerei, garraioari edo berokuntzari, eta per capita baliabideen erabilera murrizten du”. Kontseiluko Batzordearen jakinarazpena, Europako Legebiltzarrari egindakoa, hiri ingurumenarentzako strategiaren inguruan, COM (2005), 718 bukaeran, 11. or. 11. [http://ec.europa.eu/environment/urban/pdf/com\\_2005\\_0718\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/environment/urban/pdf/com_2005_0718_es.pdf)

Erreferentzia: 155/2007/23

bigarren egoitzaren koefizienteen arabera, udal plangintza jaso behar duena, edo, hala balegokio, lurralde plan partziala.

Hori dela eta, ondorioztatu behar dugu eraikigarritasuna handitzeko plangintzaren aldaketa helburu horri erantzuten dion neurria dela. Horrela, etxebizitzaren kopurua handitzeak, lurraldearen antolamenduko tresnetan aurreikusitako parametroen barne, ez luke aldaketarik ekarriko Bakioko udalerriko hirigintza garapenaren ereduari. Hori guztia, udalak hartuko lukeen eredu osoa berrikusteko aukeraren kaltetan gabe, urbanizazio prozesupean egon litzatekeen lurzorua murrizteko gutxieneko eraikigarritasun berriari kontuan hartuta.

Hori ez da eragozpena lurzoruarentzako eta bere inguruarentzako izan dezakeen ingurugiro eraginaren balorazio zuzena egiteko (bai Arau Subsidiarioetan ezarritako urbanizagarri eta egoitza erabilera bere sailkapenean zein antolamenduaren aldaketak bide ematen dion eraikigarritasunaren eta etxebizitza kopuruaren handitzearekiko).

#### 4. Hirigintza planen ingurumen eraginaren azterketa.

Ingurumenaren iraunkortasunak, hirigintzari dagokionez, lurzoruaren erabilera arrazionala dakar. Hala ere, lurzoruaren erabilera arrazionala eta etengabekoa, baliabide natural eskas gisa, bestelako ingurugiro irizpideei eta parametroei nahitaez lotua egon behar dira, hirigintza antolamenduak ere aplikatu behar dituztenak. Irizpide horien artean, ingurumenaren, ondare kulturalaren eta paisaiaren babesa nabarmentzen dira.

Ordenamendu juridikoak kontrol mekanismo bat txertatu du, hirigintza partaidetzaren proposamenek lurraldean duten eragina baloratzen laguntzen dutenak, planen eta programen ingurumen azterketa estrategikoa. Eredu horrekin bat, hirigintza antolamendu planek ingurumenaren azterketa behar dute, izan daitezkeen ingurumen ondorio garrantzitsuak (biodibertsitatea, lurzorua, ondare kulturala, paisaia, ...) hirigintza garapen ereduari izan ditzakeenak eta antolamendu proposamen horiekiko izan daitezkeen zentzuzko aukerak aztertuko dituenak, eta, hala balegokio, neurri zuzentzaileak ezartzea.

Erreferentzia: 155/2007/23

Azterketa horretan babestu beharreko beste balore guztiekin erabaki den hiriko ereduak dakarren hirigintza prozesuaren egokitzea baloratu behar da. Azterketa hori funtsezkoa da hirigintza prozesura urbanizatu gabeko lurzuaren gehitze proposamena egiten den unean. Baina, gogoan izan behar dira, baita ere, bestelako ondorengo uneak ere, hainbat alderdi baloratzeko. Esaterako, plangintza aldaketan jasotako eraikigarritasunaren handitzeak paisaian izan dezakeen eragina.

Elkarte kexagileak adierazi zuen, egindako antolamendu proposamenak, ingurumen eraginaren azterlana eskatuko lukeela. Bestalde, alegazioek Ohijako eremuko ingurumen balio berezia aipatzen zuten, han dagoen biodibertsitatea, paisaia babesteko beharra eta Gaztelugatxeko biotopoarekin zuen gertutasuna zela eta.

Bestalde, udalak azpimarratu du EAEko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 lege orokorrak ez duela bere I A) eranskinean lotutako planen barnean plangintzaren aldaketa jasotzen, urbanizaezina den lurzoruari eragiten ez diolako.

Nolanahi ere, udalak ofiziozkoa jo du SR 05 Ohijako sektorean Arau Subsidiarioen aldaketaren ingurugiro bateratuaren azterketa prozedura izapidetzeko interesa, proposatutako birdentsifikazioak eta aurreikusitako erabilerek ingurugiroan sor dezaketan eragina ezagutze aldera.

Adierazi behar dugu, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen alorreko legediak, oro har, lurzoru urbanizaezinari eragiten ez dioten antolamendu xehatuko planak eta hiri antolamenduko plan bereziak ingurumen inpaktua egitetik salbuetsi dituela. Zentzu horretan, bai aurretik aipaturiko ingurugiroaren legeak zein uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua ingurumen eragina batera ebaluatzeko prozedura arautzen dute.

Garrantzitsua da Europako Batasunaren estrategia aipatzea, ingurumenaren plan eta programen ebaluazioaren ingurukoa, zalantzarik gabe hirigintza antolamendurako tresnetan ingurumen aldagaia txertatzearen jatorria dena.

2001eko ekainaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ingurumenean plan edo programa jakin batzuen ondorioen ebaluazioari buruzko 2001/42/EE Zuzentarauak ezarri du hiri eta landa lurraldearen

Erreferentzia: 155/2007/23

antolamenduaren eta lurzoruaren erabileraren inguruan egiten diren plan eta programa guztiek ingurumen ebaluazioa beharrezkoa dutela. Edozelan ere, zuzentarauak –3.5. eta 5. artikulua– prozedura zehatza ezartzen du, kasuan kasuko planak zeintzuk diren zehazteko. Horretarako, plan motak zehazten dira edo bi metodoak konbinatzen dira. Horretarako, ingurumenean izan ditzakeen ondorio larriak kontuan hartu behar dira, planaren eta haren ondorioen ezaugarriei buruzko zenbait irizpiderekin eta antolamendu tresnaren eragin posiblearen guneko (II. eranskina) ezaugarrien irizpideekin bat etorritz.

Bestalde, estatu espainiarrak 2001/42/EE Zuzentaraua aldatu du ingurumenean plan edo programa jakin batzuen ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen bidez. Arau horrek haren 3. artikuluan, hiri eta landa lurralde antolamenduaren edo lurzoru erabileraren haren jarduteko esparruan ingurumenari inpaktu larria sor dakioken plan eta programa guztietan inpaktua ebaluatzeko beharra ezartzen du. Lurralde esparru txikiko gunek erabiltzea agintzen duten plan jakin batzuen kasuetan, ingurumen organoa izango da ingurumenean ondorio larriak daudela zehaztuko dituen. Horretarako, 4. artikulua eragindako administrazio publikoen kontsulta eta hartuko den erabakiaren argitaratzea, erabakia horrela hartu izanaren arrazoiak azalduz, beharrezkoa egiten duen izapide bat arautzen du, banan-banan edo plan motak zehaztuz.

Bi arauak, erkidegoko zuzentarauen eragin zuzenaren <sup>3</sup> eta 2001/42/EE Zuzentarauaren oinarritzko legediaren izaeraren arabera, gogoan izan behar dituzte administrazioek, ingurumenaren euskal araudiarekin batera.

Horren haritik, erakunde honek ofiziozko espedientea hasi du, ingurumenaren legediak Erkidegoko zuzenbidearen erregimenari jarraiki xedapenak egokitzeko beharra baloratzeko, bai landa lurzoruari zein hiri lurzoruari eragiten dieten plan eta aldaketen ebaluazioaren betekizuna arautzen duena ere. Hori guztia, ingurumen administrazioaren irizpideak ingurumenean eragin garrantzitsuak izan ditzakeenean.

Ohijako sektoreari dagokionez, ikusi dugu Bakioko Udalak ofiziozko zatitza jo duela sektore horretan Arau Subsidiarioen aldaketak eragin garrantzitsuak

---

<sup>3</sup> Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiko hainbat epaien artean Francovich epaia dago, C-6/90 eta C-9/90 gaiak.

Erreferentzia: 155/2007/23

izan ditzakeela, eta hori dela eta, plan hori ingurumenaren ebaluazio bateratuaren prozedurapean jarri du. Bat gatoz, erabat, udalak plan hori ingurumen eraginaren ebaluaziopean jartzeko duen irizpidearekin. Beste gai batzuen artean, eremu horrek Ingurugiroaren lege orokorraren 51. artikuluan ezarritako terminoen arabera, ingurumenaren aldetik sentikorra den izendapena izango luke, kasu horretan, itsasoko eta lurreko jabari publikoko babes-zorgunearen barne baitago. Era berean, sektorea Gaztelugatxeko biotopoarekin mugakide da, Erkidegoko garrantzia duen tokia (ES 2130005), eta eremuaren zati bat ikusten den harroan dago, paisaia berezi eta paregabe gisa sailkatutakoa <sup>4</sup>.

Kasu horretan, jarraitu beharreko prozedura Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan ezarritakoa da, ingurumen eragina batera ebaluatzeko prozedura arautzen duena. Gogorazi beharra dago prozeduraren ezaugarriak hauexek direla: ingurumen eraginaren azterlana, biztanleen partaidetza eta ingurumen eraginaren txostena, dagokion administrazioak egin beharrekoa.

Erakunde honek duen informazioaren arabera, ingurumen eraginaren azterlanak udala berriro ere eraikigarritasuna handitzeko proposamena aztertzeraz bultzatu du, eta udalak 2001ko Arau Subsidiarioen ezarpenekin bat datorren plan partzialaren izapidetzearekin jarraitzea erabaki du.

Hori dela eta, ondoriozta dezakegu, ingurugiroaren legeak plangintzaren aldaketak eta ingurumen eraginaren ebaluazioaren izapideen plan partzialak salbuetsi dituen arren, oro har, 2001/42/EE Zuzentarauak, planen estrategia ebaluazioari buruzko oinarritzko araudiak, hirigintza antolamenduko plan horien eta bere aldaketen ingurumen eragina ebaluatzeko exijitu duela, bai landa lurzoruan zein hirikoan. Eta hori guztia, ingurumen administrazioaren irizpidearen arabera, ingurumenean eragin garrantzitsuak izan ditzakeenean.

5. Nahitaezko lurzoru-erreserba babestutako etxebizitzak eraikitzeko.

Elkarteak eztabaian jarri zuen beste gaietako batek babes publikoko erregimenean nahikoa etxebizitzak erreserbatzeko beharra, hirigintza eraikigarritasuna handitzen den esparruetan, aipatzen zuen.

---

<sup>4</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia berezi eta paregabeen katalogoaren aurreproiektua.

Erreferentzia: 155/2007/23

Udalak argudiatu du, Bakioren kasuan, ez dagoela lege aurreikuspenik babestutako etxebizitzaren erreserba ezartzen duena. Horrela ez litzateke eskagarria izango, indarreko araudiaren arabera, hasierako onarpenean, ekainaren 30eko etxebizitzaren arloko presako neurriak eta hiri plangintzako zein hiri kudeaketarako tresnak izapidetzeko neurriak zehazteari buruzko 17/1994 legearen arabera. Ez litzateke Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legea ere eskagarria izango aldaketa hori ezin aplikatu daitekeelako, eta hala izango balitz ere, salbuetsita daudelako, 82. artikulua ezarritakoaren arabera, 3000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak, edo 2000 biztanleko udalerriak hirigintza lurzoru jarraituzko nukleoa dutenean. Hori dela eta, ez luke babestutako etxebizitzaren estandarren aplikazioko aurreikuspenak, ezta ere, bigarren xedapen iragankorrean jasotako aldaketei eragingo.

Hain zuzen ere, 17/1994 legeak ez zien 7000 biztanle baino gutxiagoko udalerriari eragiten, eta hori dela eta, Bakioko udalerrian ez zen eskagarria babestutako etxebizitzentzako lurzoruaren erreserba.

Bestalde, aipatu dugun bezala, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legea ez da eskagarria kasu horretan, lege horretako bigarren xedapen iragankorraren arabera. Izan ere, aldaketa zehatzaren hasierako onarpena legea indarrean jarri aurretik egin baitzen.

Horri dagokionez, EHLABaren txostenak, Arau Subsidiarioei buruzkoa, etxebizitza politikari buruzko balorazioa dakar, eta ondorengoa azaldu du:

*"Aurreko baldintza horiek guztiek espedientea osatzeko beharra aipatzera garamatzate, SR-3 Errenteria eta SR-6 Elexaldeko egoitza sektoreentzako nahiz UE Ariztondoko hiri-lurzoruko eremuarentzako erabaki lotesle gisa babes publikoko etxebizitza erreserbaren gutxieneko estandarrak (hirigintza eraikigarritasunaren %75eko handitzea eta %40 hiri lurzuruan), hirigintza lurzoruaren nukleo jarraitua duten 2000 biztanle baino gehiagoko udalerrientzat, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarritakoaren arabera (80.2, 80.3. eta 82.1. artikulua).*



Erreferentzia: 155/2007/23

Aipatutako Batzordearen behin betiko akordioak uste du <sup>5</sup> -izaera ez loteslearekin- babestutako etxebizitza-erreserba sartzeko beharra dagoela sektoreen eraikigarritasunaren handitzeari dagokionez.

Hala ere, aldaketaren behin betiko onarpena hasieran aurreikusitakoak baino babestutako etxebizitzaren erreserba gehiagorik ez du ezarri, EHLABaren gomendiotik aldentzen den arren. Horrek ez luke esan nahiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legea bete ez denik, ez baita aplikagarria aipaturiko erregimen iragankorra jarraituz gero.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen erregimen iragankorrari buruz gogoan hartu beharreko beste kontu bat dago, izapidetzen ari diren plan partzialen ingurukoa. Izan ere, garapenaren plangintza lurzoruaren erreserben betebeharrei egokitzeko epe bati lotua dago. Laugarren xedapen iragankorraren arabera erregimen hori 2008ko irailaren 20a aurretik behin betiko onartu diren xehatutako antolamendu plan horietara luza daiteke. Horrela, SUR 3-Errenteriako eta SUR 6-Elexaldeko plan partzialak aurretik behin betiko onartu dira, 2008ko abuztuaren 13an eta 2008ko abuztuaren 21ean, hurrenez hurren.

Ondoren, ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen premiazko neurrien garapenekoak, Bakioko udalerrira sartu du babestutako etxebizitzaren estandarrak aplikatu behar dituzten udalerrien artean.

Hori dela eta, udalerrien zerrenda horretan Bakioko udala sartzeko eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko laugarren xedapen iragankorrak ezarritako epe iragankorrak, laugarren atala, ondorio gisa, babestutako etxebizitzaren estandarrak betetzeko betekizuna du Ohijako plan partzialaren eraikigarritasunaren handitzeari dagokionez (oraindik ere behin betiko onartzearen zain).

---

<sup>5</sup> 6/2007 biltzarra, Bizkaiko Legebiltzarraren ataleko, urriaren 4koa. [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/es/contenidos/informacion/comisionot\\_bizkaia/es\\_1157/adjuntos/2007\\_certificaciones/s6bakio116.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/es/contenidos/informacion/comisionot_bizkaia/es_1157/adjuntos/2007_certificaciones/s6bakio116.pdf)

Erreferentzia: 155/2007/23

6. Informazioa eskuratzeko eskubidea eta biztanleen partaidetza.

Azkeneko gaia biztanleen partaidetzari eta Elkarateak izapidetutako hirigintza espedienteen hirigintza informazioa eskuragarritasunari buruzkoa da.

Elkaratearen erreklamazioak plan orokorraren aurrerapenari, Arau Subsidiarioen aldaketari eta SRU1 Areaga plan partzialari buruzko informazioa lortzeko zailtasunak aipatu ditu. Gaiaren inguruan zuten jarrera zabaltzeko udal eraikina edo "Herri Barriak" udal aldizkaria erabiltzeko dituzten zailtasunak ere aipatu dituzte.

Bestalde, udalak azaldutako eskaerei emandako erantzunen berri eman digu, eta azpimarratu du eskatutako dokumentazioa udaleko bulegoetan egon dela nahi izan duenarentzat. Nolanahi ere, uste dute ez dela Elkarate horri eman beharreko tratua, beste biztanleei edo beste elkarateei ematen zaioenaren ezberdina izan behar, ez baitu zuzeneko interesa, interes hori ukitutako lurren jabea izango balitz egiaztatuko litzatekeelako.

Udalak, 2007ko urtarrilaren 22ko bere idazkian, elkaratearen ordezkari baten interesdun baldintza ezbaian jarri du, eta horrek galaraziko luke informazio publikoaren tramitean agiriaren kopia ematea, interes pertsonal legitimoa eta zuzena egiaztatu ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 31.1c) artikulua eskatzen duenarekin bat.

Azpimarratu behar dugu garrantzitsua dela biztanleek hirigintzako informazioa eskuratzeko duten eskubidea, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean bai erreklamazioa jaso zenean indarrean zen lurzoruari eta hirigintzari buruzko araudian jasotako administrazio arauditik datorren eskubidea den heinean.

Eskubide horrek prozeduren izapidetze egoeraren berri edozein unetan izateko eta horietan barneratutako agirien kopiak lortzeko aukera dakar berekin. Eskubide hori izapidetze bidean diren espedientei –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 35 c) artikulua– edo amaituta dauden espedienteen parte diren agiriei aplikagarria da.

Erreferentzia: 155/2007/23

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko gaietan, informaziorako eta espedienteak eskuratzeko eskubide hori ordenamendu juridikoak jasotzen duen ekintza publikoarekin erlazionatuta dago zuzenean eta edozein biztanleri jarduteko aukera ematen dio, hirigintzako legezkoatasuna betetzen dela bermatzeko zuzeneko interesik egiaztatu beharrik izan gabe.

Hirigintzako informaziorako eskubidea bermatzeko bi mekanismo artikulatzen dira: udal plangintzaren eta beste administrazio egintza batzuen azterketa materiala eta zuzenekoa, eta idatziz emandako zuzeneko informazioa. Era berean, informaziorako eskubide honek izapidetutako hirigintzako plan edo espedienteak osatzen duten dokumentazioaren kopia eskuratu ahal izateko eskubidea dakar berekin.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak partaidetza eta informazio printzipioa jasotzen du -8. eta 9. artikulua-. Printzipio horrek dio pertsona guztiek dutela interesdun gisa agertzeko eskubidea, legitimazio berezirik egin beharrik izan gabe, eta baita artxiboetan jasota dagoen dokumentazioaren kopia eskuratzeko eta lortzeko eskubidea ere.

Bestalde, maiatzaren 28ko Lurzoruaren 8/2007 Legeak, herritarren eskubide gisa, lurzoruaren jabetzaren eskubidetik bereiziz, informaziorako sarbidea eta onartutako administrazio egintzen kopia lortzeko eskubidea jasotzen du.

Era berean, azpimarratu behar da, uztailaren 18ko informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen Legeak ematen duen izaera berezia, elkarre zehatz batzuei ematen diena hirigintza antolamendu planetan partaidetza publikoa bermatzeko informaziorako sarbidearen eskubideaz baliatuz.

Hori dela eta, udalari gogorarazi behar diogu hirigintzako informazioa eskuratzeko eta hirigintzako espedienteen parte diren dokumentuen kopia lortzeko eskubidea legeriak dagokion ebazpen arrazoitu bidez tasatutako kasuetara bakarrik mugatu daitekeela.

Era berean, herri administrazioek interesdun gisa jendaurrean agertzeko eskubidea bermatu behar dute, hirigintza prozeduretan interes berezia dutela frogatu gabe ere.

Erreferentzia: 155/2007/23

Herritarren partaidetzaren mekanismoei dagokienez, udalak adierazi du ez direla legeak eskatzen dituen besterik bideratu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 108. artikuluan ezarritakoa aplikagarria ez izanik, herritarren partaidetza programari edo Plangintzako Aholku Batzordea osatzeari dagokionez. Horretarako ezarritako informazioa publikoko tramitean zehar, Elkarreak alegazioak aurkeztu ditu, behar bezala erantzundakoak, eta horien bidez Ohijako sektoreko baztertzea gauzatu da. Elkarrearen iritzia zabaltzeko udal espazioen erabilerari dagokionez, adierazi dute, eztabaida idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideetan izan dela.

Hortaz, herritarrek parte hartzeko eskubideari buruzko hausnarketa egingo dugu, hain zuzen ere, nola gauzatu den eskubide hori udalerriko plangintza orokorra izapidetzerakoan eta nola bete duen Bakioko Udalak biztanleen kontrola jendaurreko informazio aldiaren izapideaz baliatuta.

Tradizionalki, biztanleek, oro har, hirigintzako planak prestatu, aldatu eta berrikusteko prozeduretan parte hartzeko duten eskubidea hirigintzako legerian jasota egon da, hirigintzako prozeduran interesdun izateko tartean inolako legitimazio edo interes berezirik egotea ez dakarren eskubide gisa.

Partaidetza espedientean zegoen informaziora sarbidea izateko eskubidean oinarritu da, antolamendu proposamenaren izapidetzean zehar irekitako informazio publikoaren tramitean eta erabakia hartu aurretik eskudun organoak erantzun beharreko alegazioak aurkeztuz.

Indarreko legerian aurreikusitako partaidetza mekanismo horiek Bakioko udaleko Arau Subsidiarioen aldaketaren izapidetzean zehar garatu dira.

Alabaina, nagusiki ingurumenaren arloan tresna juridiko berriak garatu direnez eta biztanleak sentsibilizatuago daudenez, garrantzi handiagoa hartu du biztanleek erabakiak hartzerakoan izan behar duten eginkizunak; erabaki horien artean, lurralde eta hirigintzako antolamenduari buruzkoak ere badaude, ingurumenean duten eragin nabarmenagatik, beste atal batean ere adierazi dugun moduan.

Tresna garrantzitsu horietako bat Aarhuseko Hitzarmena da (duela 10 urte inguru sinatu zen, Espainiak 2004ko abenduaren 15ean berretsitako eta

Erreferentzia: 155/2007/23

indarrean 2005eko martxoaren 31tik); hitzarmenari esker, biztanleek erabakiak hartzerakoan duten garrantzia nabarmen indartu zen.

Horrela, Hitzarmenaren sarreran, honakoa zehazten da: *“Ingurumenaren arloan, informazioa eskuratzeko bideak hobetzeak eta biztanleek erabakiak hartzerakoan parte-hartze handiagoa izateak erabaki egokiagoak hartzea eta horiek modu eraginkorragoan aplikatzea ahalbidetzen du, biztanleak ingurumeneko arazoekiko sentsibilizatzen laguntzen du, biztanleei beren kezka adierazteko aukera ematen die eta agintari publikoei kezka horiek behar bezala kontuan hartzeko bidea ematen die.”*

Ondorioz, alde bakoitzak hitzematen du neurriak hartuko dituela biztanleen parte-hartzea prozeduraren hasieran has dadin, hau da, aukerak eta konponbideak oraindik posible direnean eta publikoak benetan eragin dezakeenean (6.4 artikulua).

Adierazitakotik, nabarmendu behar dugu, garrantzitsua baita, biztanleek erabakiak hartzerakoan parte hartzeak erabaki egokiagoak hartzea ahalbidetzen duela eta, horretarako, ezinbestekoa dela lankidetzaz hori prozeduraren hasieran hastea, aukera eta irtenbide guztiak egiaztatu eta dagokion erabakian benetako eragina lortu ahal izateko.

Biztanleek parte hartu behar zutela aspalditik ezarri zen arren, gure ustez, hirigintzako plangintza izapidetzeko prozedurak jendaurreko informazioaldian, Hitzarmenak parte-hartzea zehazteko erabiltzen duen moduak indartu egiten ditu kasuan kasuko administrazio publikoak erabaki egokiagoak hartu ahal izateko interesatuta dauden biztanleen parte-hartzeak duen eginkizuna eta garrantzia.

Hitzarmen horretatik eratorriko marko juridikoa informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen legean ezarritakoa da. Arau horrek –planen eratzean, aldaketa eta berrikuspen prozeduretan, lurraldearen, landaren eta hirigintzaren antolamenduaren eta lurzoruaren erabileraren ingurukoak direnean– gehitu du herritarrek proposamenen informazio ulergarria izateko eta aukera guztiak irekita daudenean beren gogoetak eta iritzia adierazteko eskubidea dutela.

Erreferentzia: 155/2007/23

Benetakoa eta eraginkorra den partaidetzak herritarrek proposamenari buruzko informazioa izateko, erabakia hartu aurretik gogoetak edo antzeko proposamenak aurkezteko aukera eta, nolana ere, ekarpen horiek ordezkapen organoak behar bezala baloratzeko eskubidea aitortzen du, erabakia hartzeko eskumena baitu, finean.

Era berean, legeak interesa duten publiko edo elkarte zehatz batzuk, ingurumenaren babesarekin edo eztabaidagai den esparruarekin bat datozen helburuak dituenak, administrazioekin zuzeneko harremana izateko aukera txertatzen du, nahikoa aurrerapenarekin modu eraginkorrean parte hartu ahal izateko, aipaturiko legearen 16.2. artikulua.

Finean, Arau Subsidiarioen aldaketarako jarraitutako prozedurei dagokienez, Bakioko udalak interesdun publikoaren partaidetza baimentzeko nahitazeko tramiteak jarraitu ditu. Udalak ere, onartu du, tramitean aurkeztutako alegazioen ostean, aldaketa espedientearen izapidetzetik Ohijako sektorea baztertzea.

Horrek ez du udala salbuesten –aipaturiko legeak eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen araudia aplikatuz– LHL legearen 108. artikuluan ezarritako herritarren partaidetza zehatzerako programak sustatzeko, ondorengoak bezalakoak: publikorako irekitako saioak administrazioak proposatutako erabakiak azaltzeko eta balizko aukerak aurkezteko, izapidetzen ari diren hirigintza tresnei eta herritarren ekarpenei buruzko dibulgaziozko materiala, edota, eztabaida kasurik larrietan, partaidetza aktiborako bideak ezartzeko aukerak.

Programa horretan eta garatu beharreko jardueretan, udalak lehentasuna eman beharko lioke ingurumenaren babesa eta hirigintza garapen iraunkorra sustatu nahi duten pertsona edo elkarten partaidetzari.

Hirigintza erabakiak hartzeko prozeduran herritarren ekarpenak lortzeko tresna baliagarria Udaleko Plangintzaren Aholku Batzordea da, eta Bakioren kasuan, udalak adierazi duen moduan, berau sortzea aukerakoa da.

Kexa egilearen erreklamazioa ikusita eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak kontuan harturik, honakoa jakinarazten dizugu:

### Ondorioak

1. Udalerriko 3-Errenteria eta 6-Elexaldeko egoitza sektoreetan eta Ariztondoko eta ZR 11ko hiri lurzoruan plangintzen Arau Subsidiarioen aldaketa zehatzaren prozedurak, aurretik plangintzak egoitza erabilera gisa sailkatutako sektoreen eraikigarritasunaren handitzea ahalbidetzen du. Kasu horretan, etxebizitzaren handitzearen garrantzia dagoen eskaeraren aldean, ez dakar arau subsidiarioetan ezarritako antolamendu osoa berraztertzea, baizik eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legea indarrean jarri zenetik eska daitekeen gutxieneko eraikigarritasunaren egokitzapena.
2. Eraikigarritasuna handitzeko plangintza aldatzea, lurzoruaren erabilera arrazionala eta eraginkorrari erantzuten dion neurri bat da. Etxebizitza kopurua gehitzea, lurralde antolamenduaren tresnetan aurreikusitako parametroen barnean, ez dakar 2001ko Arau Subsidiarioetan ezarritako Bakioko udalerriko hiri garapenaren eremuan aldaketarik.

Horrek ez du salbuetsi behar, antolamenduaren aldaketak sustatzen duen eraikigarritasuna eta etxebizitzaren kopurua handitzeak lurrian eta bere inguruan izan dezakeen ingurumen eraginaren balorazio zuzena egitea.

3. Hori dela eta, ondoriozta dezakegu, ingurugiroaren legeak plangintzaren aldaketak eta ingurumen eraginaren ebaluazioaren izapideen plan partzialak salbuetsi dituen arren, oro har, 2001/42/EE Zuzentarauak, planen estrategia ebaluazioari buruzko oinarrizko araudiak, hirigintza antolamenduko plan horien eta bere aldaketen ingurumen eragina ebaluatzeko exijitu duela, bai landa lurzoruan zein hirikoan. Eta hori guztia, ingurumen administrazioaren irizpidearen arabera, ingurumenean eragin garrantzitsuak izan ditzakeenean.
4. Inolako babes erregimenik duten etxebizitzentzako lurzoria erreserbatzeko betebeharra, kasu honetan, ezin da eskatu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen bigarren xedapen iragankorraren arabera. Izan ere, aldaketa zehatzaren hasierako onarpena legea indarren jarri aurretik egin zen. Nolanahi ere, ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren udalerrien barnean Bakioko udala sartzeak eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen laugarren xedapen

Erreferentzia: 155/2007/23

iragankorrak ezarritako epe iragankorrak, ondorio gisa, babestutako etxebizitzaren estandarrak betetzeko betekizuna du, 5 Ohijako sektoreko plan partzialaren eraikigarritasunaren handitzeari dagokionez.

5. Hirigintzako informazioa eskuratzeko eta hirigintzako espedienteen parte diren dokumentuen kopia lortzeko eskubidea legeriak dagokion ebazpen arrazoitu bidez tasatutako kasuetara bakarrik mugatu behar da.

Era berean, herri administrazioek interesdun gisa aurkezteko eskubidea bermatu behar dute, hirigintza prozeduretan interes berezia frogatzeko beharra izan gabe.

6. Arau Subsidiarioen aldaketarako jarraitutako prozedurei dagokienez, Bakioko udalak interesa zuen publikoaren partaidetza baimentzeko zegozkion tramiteak jarraitu ditu.

Horrek ez du salbuetsi behar –aipaturiko informaziorako legearen eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen araudia aplikatzean, udalak herritarren partaidetza sustatzeko programa bereziak egin behar izatea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 108. artikuluan aurreikusitakoak bezalakoak.

Udalak garatu beharreko jardueren programa horretan herritarren edo elkarteen partaidetzari lehentasuna eman behar diote, beren helburua ingurumena babestea eta hiri garapen iraunkorra sustatzea denean.